

Andoaingo Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako 2026ko udaberriko ikastaroak jarri dira martxan

Andoaingo Udalak Andoaingo Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren 2026ko udaberriko ikastaroen edizio berria aurkeztu du gaur. Ekimen honen funtsa emakumeen ahalduntzea sustatzea eta haien parte-hartze sozial eta politikoa indartzea da.

Jabekuntza Eskolak udaleko berdintasun sailak antolaturiko egitasmoak dira, emakumeen ahalduntze prozesuak bultzatzeko. Ahalduntzea emakumeek beren buruaren autokontzientzia garatzea, autoestimua lantzea eta dituzten gaitasunak ezagutzea da, baita emakumeoi historikoki ukatu zaizkien espazioak berreskuratzea ere.

Horrez gain, Jabekuntza Eskola topagune ere bada: harremanetarako, esperientziak partekatzeko eta elkarrekin ikasteko espazioa. Andoaingo emakumeen artean sareak sortzea du helburu, elkar ezagutzeko, elkarri laguntzeko eta elkarrekin gozatzeko.

Udaberri honetako programazioaren barruan hainbat ikastaro eta lantegi eskainiko dira, emakumeen garapen pertsonala, soziala eta kolektiboa sustatzeko. Hemen ikusgai:

Izen-ematea eta informazioa

Ikastaro guztiak doakoak izango dira, eta zaintza zerbitzua eskainiko da alde zuzenetik eskatzen dutenentzat. Izen-ematea martxoaren 11tik aurrera zabalduko da, eta ikastaro bakoitza hasi baino 15 egun lehenago itxiko da.

Ikastaro edo lantegiren batean eskaintzen diren plaza kopurua baino izen-emate gehiago jasotzen badira, zozketa egingo da izena eman duten pertsonen artean. Informazioa eskatzeko edo izena emateko bideak hauek dira:

- Webgunea: jabekuntza.andoain.eus
- Andoaingo Udaleko Berdintasun Saila
- Telefonoa: 943 300 830 (380 eta 385 luzapenak)
- Emaila: berdintasuna@andoain.eus
- Andoaingo Udaleko ATARIA zerbitzua

Andoain, 2026ko martxoak 10

La Escuela de Empoderamiento para Mujeres de Andoain presenta los cursos de primavera de 2026

El Ayuntamiento de Andoain ha presentado una nueva edición de los cursos de primavera de la Escuela de Empoderamiento para Mujeres de Andoain. Esta iniciativa tiene como objetivo impulsar el empoderamiento de las mujeres y fomentar su participación social y política.

Las Escuelas de Empoderamiento son programas organizados por el área municipal de igualdad que buscan promover procesos de empoderamiento entre las mujeres. El empoderamiento implica desarrollar la autoconciencia, fortalecer la autoestima y reconocer las propias capacidades, así como recuperar espacios que históricamente han sido negados a las mujeres.

Además, la Escuela de Empoderamiento es también un espacio de encuentro, relación e intercambio de experiencias. Su objetivo es crear redes entre las mujeres de Andoain, fomentando el conocimiento mutuo, el apoyo y el disfrute compartido. Dentro de la programación de esta primavera se ofrecerán diversos cursos y talleres orientados a impulsar el desarrollo personal, social y colectivo de las mujeres. Pueden consultarse aquí:

Inscripción e información

Todos los cursos serán gratuitos y se ofrecerá servicio de cuidado infantil para quienes lo soliciten previamente. El plazo de inscripción se abrirá el 11 de marzo y se cerrará 15 días antes del inicio de cada curso.

En caso de que el número de inscripciones supere las plazas disponibles en algún curso o taller, se realizará un sorteo entre las personas inscritas.

Para solicitar información o realizar la inscripción:

- Web: jabekuntza.andoain.eus
- Área de Igualdad del Ayuntamiento de Andoain
- Teléfono: 943 300 830 (extensiones 380 y 385)
- Email: berdintasuna@andoain.eus
- Servicio ATARIA del Ayuntamiento de Andoain

Andoain, 10 de marzo de 2026